

## Euskal Hezkuntza Sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen.

FICOBA. Irun / 2023.09.30

### HH-DLH MAILAKO AZTERKETA.

**Talde iraunkorra (11):** Maite Azpiazu (Oinherri herri hezitzaileak sustatzeko elkarte), Beñat Azurmendi (Ikastolen Eñkartea), Naiara Escalante (EHU -Hezkuntza Zientziak. Doktorea, eskolan lanean aritutakoa), Irantzu Gallastegi /CEIP Aranbizkarra Ikas Komunitateak HLHI), Maialen Idoate (Iparraldeko eskola publikoa), Nekane Lasa (Iruñako San Frantzisko eskola), Maite Larrañaga (Haurreskolak Partzuergoko zuzendario ohia), Irati Manzidor (Eskola txikietako koordinatzailea), Iñigo Salaberria (Heize), Nora Salbotx ( Amairko eskola), Idoia Sara Perez (hezkuntza Departamentua Nafarroako Gobernua-Prestakuntzaren eta kalitatearen atala), Arantxa Urbe Irazusta (Ikastola – hezitzailea eta Hik Hasi aldizkariko kidea).

**Bigarren geruza (6):** Ikoitz Arrese (Eusko Legebiltzarra. Hezkuntza Batzordea – ehbildu), Tasio Arrizabalaga (Elhuyar), Ibon Herran (Kortiñe, Sarete, GHEU), Egoitz Larrañaga (Udalbiltza Partzuergoa), Jon Fernandez (UPV/EHU Ikerlaria), Saioa Mujika Sierra (Kortiñe, Sarete, GHEU)

**Idazkaria:** Nerea Muguruza (IkasGaraia ikerlaria)

Ficobako saioan etapa honen hausnarketa bi taldetan burutu zen. Txosten honetara talde bien eztabaidak ekarri dira.

## AZTERKETA ETA EZTABAIDAREN BERRERAKUNTZA

- Haur Hezkuntza – Lehen Hezkuntza etapa beraren potentzialitatea kohesiorako tresna gisa. Haurtzaroaren definizio berritzailearen eraiketa kolektiboa lotune gisa. “Ni naiz nire haurtzaroa gehi eranskin bat” (Xabier Amuriza; Argia, 2023ko azaroaren 6an)**

HH-DLH oinarritzko etapa beraren potentzialitatea kohesiorako tresna gisa aipatzen da, muga administratiboak egonda ere, bere garapenak antzekotasun haundiak dituelako hiru herrialdeetan eta haurraren hurbilen dagoen etapa delako. Haurrarekiko begirada erdigunean jartzea eskatzen du, nortasunaren garapenean jauzi egiteko etapa da -“nitasunetik” “gutasunerako” bidea egiteko etapa-, kohesiorako gakoak garatzen dira besteekin elkarrekintzan jarduten.

Potentzialitate horri bigarren ideia bat gehitzen zaio. Eguno errealitate konplexuan haurra kokatzen laguntzeko eta garapen bidean jartzeko, haurtzaroaren definizio berritzailea eta haurrarekiko irudi kolektiboa ber-eraikitzearen beharra ikusten da. Paradigma honen definizioa eta garapen partekatua planteatzen da aukera kohesionatzaile nagusi gisa; proiektu izarra: *haurrarekiko begirada erdigunean.*

Taldearen solasean aipatzen diren Xabier Amurizaren hitzak har daitezke ideia horien indar kohesionatzailea adierazteko: **“ni naiz haurtzaroa gehi eranskin bat”**

*Haurtzaroaren, euskal haurraren, paradigma berritzailearen ber-eraketa kolektiborako, begirada berria eskainiko luketen zenbait gako azpimarratzen dira, haurrerekiko begirada modu holistikoa kokatzeko lagunduko dutenak :*

- **Endozentristatik harago:** Haurrerekiko begirada erdigunean beste modu batean jarri behar dela esaten da. Begirada aldaketa egon behar du jendartearen antolatuta dagoen helduzentristikoa gaindituz, helduzentristikoa zalantzan jarriko duen hezkuntza eredua sustatuz. Hemen gogoeta sakona behar dela eta helduok desikasi behar dugula esaten da, benetan haurtzaroaz hitz egiteko eta beraien ahotsa eragina izan dezan. Hurbilketa honek azpimarratzen duen garatu beharreko beste kontzeptu gako batekin lotura du, “haurra burujabea”.
- **Haurra-ikaslea burujabea:** Subjektu politikoak heztearen partaidetza aktiboa sustatuz. Erabakiak hartzeko eta erantzunkidetasunerako kultura parte-hartzailean heztearen berrakuntza, bermatuko duten baliabide, giro eta espazioak ko-erakiz. Helduekin elkarlanean eta adinen arteko lotura guneak sortuz (eskolan, herrian, aisialdian, udalean), baita berezko erabakiguneak (haur-nerabe asanbladak); plano diskurtsiboa eta praktikoaren arteko loturak, egiturak eta estrukturak sortuz hartzen diren erabakiak egunerokotasunean eragina izan ditzaten. Guzti honek, komunitatean heztearen beharra adierazten du.
- **Komunitatean heztearen beharra:** Ingurunearekin, testuinguruarekin harremanetan beharra, ingurune hurbilarekin elkarrekintzan. Adierazi den bezala, HH-DLH jauzi egiteko etapa da. Nitik (intimitatea), gure (eskola, ezaugarri antzekoen taldea), komunitatera-herrira (herritar kolektibo anitzagoak, ingurunearekin elkarrekintzan). Honekin, **“herri hezitzaileen”** ekimena eta lantzen duen ikuspegia azpimarratzen da:
  1. Parte-hartzearen heztearen beharra:
    - Nitasunetik gutasunera jauzi hori egiteko
    - Nortasuna eraikitzeko.
    - Besteekin elkarrekintzan jarduten ikasteko.
    - Herritartasun kultura parte-hartzailearen sustatzeko.
  2. Komunitatean heztearen beharra: eskola eta tokiko beste erakundeak elkarlanean (udala), herrigintza, hezkuntza ez formala.
- Komunitatean heztearen beharra azpimarratzen den kohesiorako beste gako batekin lotzen da, **elkar-ezagutza:** konfiantza garatzeko, estereotipoak gainditzeko eta usteak kolokan jartzeko funtsezkoa da. Elkar-ezagutzarako eremuak eta parte-hartze dinamikak sustatzea eta egituratzeaz ari gara. Elkar-ezagutzarako eta amankomuneko bideak eraikitzeko **“eredu dialogikoan” oinarritzearen balioa** aipatzen da; berdinen arteko, adinen arteko eta

desberdinen arteko elkarrizketa, guztiontzat ona denaren inguruan bideratzeko komunikazio eredu gisa agertzen da.

Haurrekiko begiradaren ber-eraketa kolektibo honen oinarrian hezkuntza eredu dugu. Eredu gaurkotu bati begira, bi paradigma azpimarratzen dira: *pedagogia kritikoa* eta *pedagogia feminista*:

- **Pedagogia kritikoa:** Guztien onerako pedagogia oinarri izatea, haurtzaroen beharrak eta interesak kontuan izango dituenak. Kontestu sozial eta historikoarekin elkarrizketan dagoena eta hura problematizatzen duena bertan aldaketak eragiteko.
- **Pedagogia feminista. Feminismoaren diskurtsotik ekimenak hezkuntzara ekarri:** Botere harremanak, espazioak, zaintzaren etika eta pedagogia, kontziliazioan oinarritutako ereduak, rolak, gorputzak... problematizatu behar dira hezkuntzan gaurko Euskal Herrian.

Bestalde, haurtzaroren definizio ko-eraketa honetan eta Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza etapa beraren potentzialitatea aztertzerakoan, arreta eta azterketa berezia behar duen **0-3 etapak (edo amesten jarrita 0-3/4 urtera hartuko luken etapa) behar duen kontzeptualizazioa eta premien azterketa izan da.**

Hastapenetako etapa hau berria izanik, Euskal Herri mailako oinarri amankomunak eraikitzeke aukera bezala planteatu daiteke; hasierako hezkuntza kohesiorako tresna gisa hartuz.

Hausnarketarako gako hauek eskaintzen dira:

- Haur eta Lehen Hezkuntzatik desberdintzea, ez delako ikusten adin honetako haurrak eskolatzen?, baizik eta espazio bereiztuetan umeak bere garapena era autonomoan garatzeko. Ahal den denbora gehien aire librean egoteko aukera eskaintzen dituzten espazioak.
- Kontziliazioan oinarritutako ereduak sortzea.
- Hezitzaileen formakuntza eta egitekoak: Etapak behar duen profil egokia hasierako formakuntzatik bermatzea eta, hezitzaile kopurua egokia, egiteko berdinenik?; eginkizun denak hezitzailearen begiradatik egin beharrekoak uneak desberdintzeke (jateko uneak, aldatzeko uneak...).
- Hizkuntzaren trataera: Euskara ardatz umearen hizkuntza kontuan hartuz, barne-bilduz, ikaskuntza prozesura.
- Egituraketaren aukeren azterketa:
  - ✓ Hiru herrialdeetan formulazio eta antolaketa desberdinak dituzte. Euskal Herri mailako partzuergoa eratzea zaila izan daitekeela esaten da.
  - ✓ 0-3/4ko etapa koordinatzen duten mahaien osaketa: herrialde bakoitzean bat eta Euskal Herriko mahaia: gutxienekoak adosteko Euskal Herriko haurreskoletan aplikatzeko (betetzeko).
  - ✓ *Pikler* proiektuari -berdintasunean eta haurraren errespetuan oinarritzen dena- Euskal Herriko dimentsioa eman.

## II. Diskurtsotik praktikara: Saretzea eta eratzea

Herri gisa irudikatu nahi den etorkizunak kohesioa du gogoetarako hitza; lurralde eta jendarte kohesioa. Kohesioak erreferentzia egiten dio eragileen arteko harreman estuari eta konpaktuari, hein batean dinamika zatikatuak gainditu eta elkarlanean indar metatzailea sustatzen duena, jendartean ere inklusioa nagusitu dadin.

Nagusitzen den ideia da, nahiz eta plano diskurtsibotik praktikarako bidea egiteko hainbat oztopo identifikatu, praktika(k) saretze eta eratze berak ekarriko luke(te) horiek gainditzeko bidea(k). Aukera kohesionatzaile gisa hartuta, bigarren proiektu izarra agertzen zaigu: Saretzea eta eratzea

Identifikatutako oztopoak, gainditu beharreko mugak, adierazpen ezberdinetan agertzen zaizkigu:

- Gizarte eredia, politikak eta praktikak: Gizarte talde batzuen beldurrak; ikuskera, interesen eta ereduaren talkak; eredu dialogikotik urrun hezitu gaituen gizartea; eguneroko kudeaketak eskatzen duen arreta vs esploratzeko denborak eta espazioak.
- Ezezagutzak: gizarte talde ezberdinen artean, herrialdeen artean, sareen baitakoa eta sareen artekoa.
- Muga administratiboak: Araudi administratiboak, administrazioek aurkitu ditzaketan mugak, hezkuntza sistema formalaren zurruntasuna.
- Baldintza legal eta politikoak.

Oztopo hauek gainditzeko klabe nagusi batzuk nabarmentzen dira, hurbilketa, erantzun bide eta saretze-eratze eredu desberdinak eskatuko dizkigutenak:

- Diskurtso berriak elkar-erakitzeke, elkar-ezagutza eta konfiantza garatzeko tokian-tokiko foroak antolatzea.
- “Eskalatzeko” logika aplikatzea, fraktalen eredia, behetik gorako partaidetza sekuentzia:
  - ✓ Herria-Auzoa
  - ✓ Landa eremua-Hiria-Eskualdea
  - ✓ Lurraldea
  - ✓ Euskal Herria (Nazioa).
- Sareen eta Partzuergoen osaketa eta eraketa.
- Mugak gainditzeko bideak, begirada estatuetatik at: Europako markoa, herri mailako elkarlanean oinarritutako proiektuak, dimentsio digitala.
- Hezkuntza formala eta ez formala lotuko dituzten espazioak, proiektuak.
- Dagoenetik abiatuta: dagoena sendotu eta aukera berriak eraiki.
- Kohesiorako terminologia bateratua eraikitzea: Hizkuntza komuna sortzea, araubidea adostea eta bateratzea, azterketa eta sistematizazioarako tresnak sortzea.
- Herrigintza eta naziogintza erdigunean jartzea.

Aipatutako oztopoez gain, arreta berezia (eta lanketa berezia) eskatzen duen oztoparazo larria nabarmentzen da: Euskara eta hizkuntzen ezagutza eta euskararekiko jarrera. Hiru hizkuntzatan ezagutza bermatu beharko litzatekeela esaten da. Bestalde, eredu eta, Nafarroaren kasuan, zonifikazioaren desagerpena beharrezkoa dela esaten da. Ipar Euskal Herriaren eta Nafarroaren kasuetan, ofizialtasunaren ezaren arazoa azpimarratzen da.

### III. Zer egin eta nola

Diskurtsotik praktikara egin beharreko bidea aukera kohesionatzaile gisa hartzen da. Bide hori egiteko gaur egun dagoenetik abiatzea azpimarratzen da. Egindako ibilbidean badaude esperientzia arrakastatsuak, hauek ezagutzetik, partekatuzetik, zabaltzetik eta aztertuzetik hastea lana erraztuko luke. Bestalde, egiteke daudenak eta kohesiorako aukera gisa formulatzen diren proposamenak nabarmentzen dira ere.

EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren arteko ekimen bateratu baterako proposamenak jasotzen ditugu jarrian. Lau kapituluetan bilduta:

- 1) Diskurtsotik praktikara: aukerak. Martxan edo bidean dauden ekimenak eta aukera gisa planteatzen diren egiteke daudenak jasotzen dira.
- 2) Euskalduntzeari ekiteko: Arreta berezia behar duen gaiaren inguruan jasotzen diren azpimarrak biltzen dira.
- 3) Egiturak eta esperientzia-proiektuak konkrituak: Euskal Herria kohesio bidean kokatzeko formulatzen diren egitura eta esperientzia konkrituen proposamenak jasotzen dira.
- 4) Aukerak indartzeko eta oztopoak gainditzeko tresnak.

#### 1) *Diskurtsotik praktikara: aukerak:*

Mugaz eta sareez gaindiko ekimenak, Euskal Herria kohesionatzeko bideak erakusten duten hainbat aipatzen dira: AEK, Udalbiltza, UEMA, Ikastolen Elkarte, EuskarAbentura, Oinherri, UEU, Eusko Ikaskuntza bera... Euskal Herria kohesio bidean jartzeko klabeetako bat, udalerriz-udalerriz egiten diren hainbat esperientziari partzuergo forma ematen datzala azpimarratzen da.

“Euskal-hezkuntzagintzara” gerturatuz, maila lokalean martxan daudenak eta egiteke daudenak, baina aukera gisa formulatzen direnak aipatzen dira:

Martxan edo bidean:

- Herri Hezitzaileak: Haurren kultura ardatz hezkuntzan herriak, udalak, eragileak eta hezkuntza komunitatea inplikatze gaitasuna dute. Nazio eskala hartu dezan bultzada haundiagoa behar du, babes instituzionala, formazioa, zabalkunde orokortuagoa.

- Herrietako Udal Hezkuntza kontseiluak indartu, sortu, bultzatu eta saretu. Udalbiltza bezalako egituren bitartez, edota era autonomoan, partzuergo forma emanez.
- Jangeletan elikadura burujabetza lantzen duten ekimenak saretu, bisibilizatu, indartu. Kotsentsuzko gisa honetako gaietatik abiatuta kohesioari eta elkar-ezagutza eta ekimenari bideak zabaltzen zaizkiolakoan. “Gure platera, gure aukera” eta Errigoran baleudeke honetarako haziak.
- Software aske, burujabe, euskaldun baten aldeko ekimenak, bai eta “pantaila euskaraz” gisakoak hezkuntzagintzan pasatuz?. Honek ere ber-dimentsionatzea behar du.
- Eredu dialogikoa: Aranbizkarra Ikas Komunitateko esperientzia.
- Irakasleen topaguneak eta formakuntza: Dauden espazioak sendotuz: Hik Hasi, UEU.
- Mugaz gáindiko eskola proiektuak: Arnegi-Luzaide adibide.
- Eskola txikiak: esperientzia praktikoak badira dagoeneko, adibide gisa har daitezke.
- Lurraldeetan egiteko eta saretzeko kulturak ikasgai: Iparraldeko ereduak ezagutu eta zabaldu.
- Udalak: Daude udalen arteko senidetze eta saretze ekimenak aztertu, sistematizatu eta zabaldu.
- Elkarren arteko diagnosiak gauzatzeko oinarriak: Nafarroan, NIZE-ADIZE-ADI eta administrazioaren arteko foroa.

Egiteke daudenak, aukera gisa planteatzen direnak:

- Kotsentsuzko gaietatik abiatuta eta erronka handiei erantzutera bideratutako ekimen berriak, elkar-ezagutzarako eta kohesiorako gaitasuna izan ahal dute. Arestian aipatu diren gaiak (botere harremanak, espazioak, zaintzaren etika eta pedagogia, rolak, gorputzak..) pedagogia feministaren ikuspegitik problematizatzeak irekitzen dituen aukeraz gain, gaitasun eko-sozialak, ingurugiroaren justizia, klima larrialdia, zaintzaren etikaren dimentsio eko-feminista... lantzerá bideratutako hezkuntza inizatibak ere kohesionatzaileak izan daitezke.
- Kohesiorako terminologia bateratua eraikitzea: Hizkuntza komuna sortzea, araubidea adostea eta bateratzea, azterketa eta sistematizaziorako tresnak sortzea. Zoru komun bateratua adostea eta inplementatzea.

**2) Euskalduntzeari ekiteko:**

- Instituzionalizazioan sakontzea eta ofizialtasunaren alde lan egitea.
- Herri curriculumetatik abiatu eta Euskal Herri mailako curriculumak sortzea.
- Materialak eta erreferente kultural komunak sortzea.
- Tokian tokiko komunitateen esperientzietatik eta elkar-ezagutzatik euskal nortasuna, euskal hezkuntza sistema bakarra begira jartzea.

### 3) Egiturak eta esperientzia konkretuak:

- Eskola, aisialdi taldeak, komunitatea-herria aintzat hartzen dituen haur-nerabeen parte-hartze kanalak eraiki eta tokian-tokiko elkarguneak sortu. Udala eta udal zerbitzuak (kultura, liburutegiak, museoak, antzokiak), tokiko eragileak eta kultura taldeak harremanetan jarriko dituztenak.
- Ordezkaritza anitzak harremanetan jartzeko egiturak sustatu. Herrialde mailako hezkuntza mahaiak osatu (hezkuntza mahaiak x 3).
- Euskal Herri mailako hezkuntza bilguneak behar dira, Euskal Herri mailako eragileen ordezkariarekin. Izaera desberdinetakoak aipatzen dira, “supernoba” egitura bat osatuko luketenak eta aztergai gisa planteatzen direnak:
  - Euskal Herri mailako hezkuntza bilgunea: irakasleen formakuntza / ikasleen antolakuntza.
  - Hezkuntza formalaren foro nazionala: sareetako ordezkariak (etapa desberdinak).
  - Hezkuntza ez formalaren foro nazionala: aisialdi taldeak, gazte taldeak.
  - Udalen hezkuntza foro nazionala: hezkuntza teknikariak, politikariak...
  - 0-3/4ko etapa koordinatzen duen mahaiak hiru lurraldeetan eta Euskal Herriko mahaiak: gutxienekoak adosteko Euskal Herriko haurreskoletan aplikatzeko (betetzeko).

Zehaztu beharko litzateke nortzuk, dinamika, helburuak, norik sostengatuko luke. Euskal Herriko hezkuntza publiko komunitarioaren elkargune hau, balizko “supernoba” hori, zer izango litzateke? Ente bat? Zein funtzio, eskumen izango litzuzke?

- Sustatu daitezkeen esperientzia-proiektu konkretuak:
  - ✓ Hezitzaileen arteko elkar-trukaketak.
  - ✓ Ikas komunitateak sortzea.
  - ✓ Zuzendaritzen arteko foroak antolatzea.
  - ✓ Etorkizunean beharko diren profesionalak sortzeko ikuspegia garatzea.
  - ✓ Euskal Erasmusa: Irakasleriaren mugikortasuna eta elkar ezagutza oinarritzko ezagutza bateratuen inguruan. Eremu euskaldun eta ez euskaldunen arteko harremana sustatuz.
  - ✓ “[Confint](#)” (Conferencia Internacional de jóvenes – Cuidemos el planeta) programa antzerakoak sustatu.
  - ✓ Ikastetxeen arteko interkanbioak, bidaiak...
  - ✓ Eskolen sareak ehundu proiektu amankomunak garatzeko. Adibidea: [Etwinning](#) programak Euskal Herri mailan.
  - ✓ Elkarren arteko diagnostikoak egitea.

### 4) Aukerak indartzeko eta oztupoak gainditzeko tresnak

- Curriculum nazionala eta kapital kulturala:

- ✓ Herrigintza eta naziogintza erdigunean jartzeaz gain, herri curriculumaherri hezitzailea, eskola herritarra landuko duena: auzolana, pertenezia sentimendua, konpromisoa, parte hartzea. Herriari, bertako arazoei, identitateari, kulturari begiratzen dion eskola.
- ✓ Euskal Herriko iruditeria, ikus-entzunezkoen garrantziari arreta jarri, lurraldetasunaren ikuspegi batetik erreferenteak eraiki eta guztion eskura jarri.
  - Irakasleen formakuntza amankomunaren garapena.
  - Unibertsitateekin batera ikerketa antolatua eta partekatuaren garapena.
  - Mugaz gaindiko dirulaguntzek eskaintzen duten markoaz baliatzea.
  - Administrazio desberdinen inplikazioa lantzea.

## IV. Azken ondorioak (behin-behinekoak)

Ondorio gisa ideia hauek azpimarratu daitezke:

- Haurtzaroaren definizio berritzailea eta haurrarekiko irudi kolektiboa bereraikitzearen beharra ikusten da. Paradigma honen definizioa eta garapen partekatua planteatzen da aukera kohesionatzaile nagusi gisa. Hau oso lotuta dago etapa beraren kohesiorako potentzialtasunarekin.

Definiziorako hausnarketa garapen-fasean kokatzen duten gakoak eztabaidatzen dira: haurra burujabea, komunitatean heztea, elkar-ezagutza, helduzentrismoa gaindituz. Eredu gaurkotu bati begira, bi paradigma azpimarratzen dira: *pedagogia kritikoa* eta *pedagogia feminista*.

- Nagusitzen den ideia da, nahiz eta plano diskurtsibotik praktikarako bidea egiteko hainbat oztopo identifikatu, praktika(k) saretze eta eratze berak ekarriko luke(te) horiek gainditzeko bidea(k).

Oztopo hauek gainditzeko klabe nagusi batzuk nabarmentzen dira, hurbilketa, erantzun bide eta saretze-eratze eredu desberdinak eskatuko dizkigutenak:

- Diskurtso berriak elkar-eraikitze, elkar-ezagutza eta konfiantza garatzeko tokian-tokiko foroak antolatzea.
- “Eskalatze” logika aplikatzea, fraktalen eredua, behetik gorako partaidetza sekuentzia: Herria-Auzoa / Landa eremua-Hiria-Eskualdea / Lurraldea / Euskal Herria (Nazioa).
- Sareen eta Partzuergoen osaketa eta eraketa.
- Mugak gainditzeko bideak, begirada estatuetatik at: Europako markoa, herri mailako elkarlanean oinarritutako proiektuak, dimentsio digitala.
- Hezkuntza formala eta ez formala lotuko dituzten espazioak, proiektuak.
- Dagoenetik abiatuta: dagoena sendotu eta aukera berriak eraiki.



- Kohesiorako terminologia bateratua eraikitzea: Hizkuntza komuna sortzea, araubidea adostea eta bateratzea, azterketa eta sistematizaziorako tresnak sortzea.
- Herrigintza eta naziogintza erdigunean jartzea.

#### **PROIEKTU IZARRAK:**

- Haurrarekiko begirada erdigunean
- Diskurtsotik praktikara: Eraketa kohesiorako bidea.

#### **Hurrengo urratsak:**

- Dokumentu hau kritikoki aztertu taldekideen artean: ekarpenak, zuzenketak...
- Ondoren, partekatu FICOBAn egon ez zirenekin.
- Lan-dokumentua prestatu eta lan-saioak antolatu.

Eranskin gisa: Sistematizazio tauletan jasotakoak

TALDEA 1

Ametsak / IDEIAK / PROIKETUAK	POTENZIALITASUNAK	OZTOPOAK	ZER EGIN DAITEKE	NOREKIN
<b>Ahotsa eta gorputza (ikasleak)</b>	Elkarbizitza hobestea, helduen eta gazteen arteko loturak sortu, momentuak	Hutsune asko daude		
<b>Intimidadea-komunitatea-eskola</b>	Nitasunetik-gutasunera Ni sendo bat – eskola taldea – kolektiboa		Komunitatean hezte	Beste erakundeak
<b>Hezkuntzarako topaguneak</b>				
<b>Mankomunitatea: ikastetxeetatik atera: bilguneak sortu</b>	Ikasleen parte hartze dinamikak	Parte hartzearen kultura falta da Irakasleen formakuntza falta da	Baliabideak	Unibertsitateekin harremana
	Bidaiak eta kanpaldiak (beste ikastetxeekin batera)		Irakasleen formakuntza (Hik Hasi, UEU)	
	Eskolen sareak ehundu eta eskola proiektuak sortu		Hizkuntzaren ezagutza (Euskara zentrala, baina hiru hizkuntzak bermatu) Ikastetxeen antolakuntza	
<b>Ikasleak eta haurrak ikusteko modu partekatu bat: euskal haurra..(aisialdiatik eta eskolatik)</b>	Testuinguruak Denborak Harremanak Arauak Ikastetxeen arteko saretzea ekarriko luke	Errealitate oso desberdinak	Gogoetatik praktikara Materialgintza	Foroak sortu (lurralde desberdinak) Elkarezagutzatik eta elkareraikuntza
<b>Hezigunea (¿) Zubiak eraiki (?)</b>				
<b>Herri hezitzailea eskola herritarra</b>	Eskolako paretak <b>sortu bota?</b> Herri curriculuma Etapa klabea herri identitatea eta lurraldetasuna ikusteko	Ikus entzunezkoaren eragina (kapital kulturalen duen eragina): zeintzuk dira erreferenteak?	Euskal kapitala kulturala	Foroak sortzea: eragile desberdinekin eta oso anitzak  Batzuetan talde txikiak. Bestetan talde handi eta anitzetan
<b>Endozentrismoa</b>	Asanblea		Irakasleek begirada aldaketa hori egin Aukera	
	Ikaslea erdigunean Ikasleek erabakiak			

	hartzea.		berdintasuna	
	Helduok desikasi behar dugu			
	Haurrarekiko begirada			
<b>Haurrak burujabe</b>	Begirada aldaketa Elkarlanetik eraikitzea Herri hezitzaileen eta ikaslen arteko paradigma aldatu: ikaslea erdigunea bada, lotura bada euskal ikaslea	Hezkuntza sistemaren ezaugarriak: administrazioa, lurraldeak...	Iruditegia administratiboki gaitztea	Tokian tokiko sinergiak eta elkartrukeak: sareak
			Eskola kirol inklusiboa: elkarlanerako aukerak Haur eta nerabeen kirol federazioa sortzea	Udal mailan sortu daitezkeen loturak
<b>Planteamendu filosofikoa: haurra (modu holistikoa)</b>	Begirada paternalista aldatu	Pantailak eta ikus entzunekoez duten indarra	Udalbiltzak Eskala lokalean Mankomunitatea	Inguruko eragile desberdinekin
	Etaparen potentzialtasuna indartzeko aukera Haurraren hurbilen dagoen etapa	Pedagogia feministaren planteamendu erradikala falta da Zaintza erdigunean, non?		
	Haurra erdian jarrita: udal komunitateak... dena haren inguruan			
	Elikadura burujabetza Kontzientzia maila Elkarlana ondoko eskolekin			
	Justizia ekosoziala Errigora			
	Kutxatu gabeko proposamea			
<b>Haurrarekiko begirada: haurra begiratzeko beste modu bat, komuna</b>	Helduarekin elkarlana Haurra erdigunean Korresponsabilitatea Plano diskurtsibo eta praktikoaren arteko	Agintea dutenen lehentasuna Konpromiso falta	Agintea dutenekin konbentzitzea	Ikerketa zientifikoarekin Hezitzaileen arteko topaguneak: sareak
	Pedagogia kritikoak			

TALDEA 2

Ametsak / IDEIAK / PROIEKTUAK	Potentzialtasunak	Oztopoak	Zer egin daiteke	Norekin
<b>0-2 urteko etapa: Kontziliazioan oinarritutako eredua sortzea (3-4 urtera ere zabaldu daitekeena)</b>	Euskara oinarritzko hizkuntza, jatorritzko hizkuntza errespetatuz.	Gaur egun, Iparraldekoekin batera aritzea zailagoa izan daiteke, baina, hegoaldean eredua zabal daiteke.	1-Pikler estiloko eredu bat izan daiteke, egokitua.  2-Irakasleentzat prestakuntza behar da.  3-Ikastetxeetan txikien espazioak aparte egon behar dute.	
<b>0-9 urteak</b>			1-Pertsona erdigunean ipintzearen garrantzia.  2-Kohesioa lortzeko oinarriak:  -Ikas komunitateak. -Komunitateetan arteko ezagutza sareak sortzea. -Herrigintza eta naziogintza erdigunean ipintzea. -Denon arteko zubiak eraikitzea: nahi dugun etorkizuna sortzeko oso garrantzitsua.  3-Etorkizunean beharko diren profesionalak sortzeko ikuspegia garatzea.	

<p><b>Euskal Erasmusa sortu beharra</b></p>	<p>16-18 urte bitarteko gazteei zuzendutako Euskal Abentura ekimena dagoeneko egiten da.</p> <p>HH-LH etapetan euskarazko joera areagotu da eta horrek errazago ahalbidetu dezake.</p>		<p>1-Barne kohesiorako, eremu euskalduna eta ez euskalduna elkartu beharra.</p> <p>2-Euskal ikasleen eta irakasleen arteko harremanak sustatzea: Ezagutzak partekatzea. Elkartrukearen ideiarekin beharra aipatzen da. Ikastolek egiten dute eta kideak sentimendu partekatua bultzatzeko ezinbesteko ikusten da.</p> <p>3-Herri batzuk saretuta daude eta dagoeneko senidetze-ekimen batzuk egiten dira: Hauek sistematizatu eta toki gehiagotara zabal daitezke.</p> <p>4-Elkartruke ekimen hauek norbanakoen borondatearen esku ere badaude.</p> <p>5-Hiru lurraldeen arteko mugak gutxitu beharra dago, gehiegi daude-eta.</p>	
<p><b>Kohesiorako terminologia bateratua eraikitzea</b></p>	<p>Egiten dena ez da egiteagatik egin behar, ikuskatzea eta aztertzea garrantzitsua da.</p>	<p>Normatiba adostea eta bateratzea.</p>	<p>Hizkuntza komun bat sortzea.</p>	<p>Unibertsitatea eta ikerketa ezinbestekoa.</p>

<p><b>Iparraldetik:</b></p>	<p>Mugak gainditzearen beharra dago: Ekimenak martxan dituzte eta dagoeneko lorpenak badira.</p> <p>Lurralde guztiek partekatzen dituzten oinarrietatik abiatzearen garrantzia aipatzen da.</p>		<p>Tokian tokiko komunitateen esperientziatik eta elkar ezagutzatik à Euskal nortasuna, euskal hezkuntza sistema bakarrera begira ipintzea.</p>	
<p><b>Ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzea</b></p>			<p>Honetan ere estrategia komunak abian jartzea: Periferia integratzea eta egoera zaurgarrian daudenak murgiltzea.</p>	
<p><b>Euskalduntzeari ekitea</b></p>			<p>1-Egingarriak diren material didaktikoak, erreferente kultural komunak sortzea à lldo honetan ere profesionalen prestakuntza bultzatzea.</p> <p>2-Herri kurrikulometatik abiatu eta Euskal Herri mailako kurrikuluma sortzea.</p> <p>3-Kurrikulumean nazio ikuspegia txertatzea.</p> <p>4-Instituzionalizazioan sakontzea eta ofizialtasunaren alde lan egitea.</p>	

<p><b>Saretzea</b></p>	<p>EAE + Nafarroa + Iparraldea: Denon arteko sareak sortzea eta zubiak eraikitzea.</p> <p>Badago ibilbidea eta esperientzia eta horrek lana errazten du.</p>	<p>Interesen eta ereduaren talkak gainditu beharra dago.</p> <p>Askotan, eguneroko kudeaketak lehentasuna hartzen du eta, horren ondorioz, ezin izaten dira beste kontu hauek landu.</p>	<p>1-Elkarezagutzaren beharra: Ikastetxeetako zuzendaritzen koordinazioa eta hauek instituzioekin harremanetarako beharra (Nafarroan egiten da).</p> <p>2-Hilean behin zuzendaritzen arteko foroak antolatzea.</p> <p>3-Ikas komunitateak sor daitezke.</p> <p>4-Eragile ezberdinak elkartuko dituen Euskal Herri mailako Hezkuntza mahaia sortzea.</p>	<p>Europako dirulaguntza batzuek EHa dute fokoa.</p>
<p><b>Saretze-prozesua eredu dialogikoan oinarritzea</b></p>	<p>Komunikaziorako eta harremanetarako balio dezake: Aranbizkarra Ikas Komunitatean aplikatzen dute.</p>			
<p><b>Elkarren arteko diagnostikoa egitea</b></p>	<p>Nafarroako UPNAk bultzatutako Katedra izeneko ekimena martxan dago, adibidez.</p> <p>Euskara</p>	<p>Muga administratiboak</p>	<p>1-Arrakastatsua diren proiektuak ezagutzera ematea.</p>	

<p><b>Eskola txikiak</b></p>	<p>Esperientzia praktikoak daude.</p>		<p>1-Eskola atsegina da. Umeek eta gazteek joan nahi dute.</p> <p>2-Eskola partehartzailea: eskola asanbladak.</p> <p>3-Gai hauetaz hausnarketa egiten da: Heduzentrismoaz, haurraren begiradaz, irakaskuntza ereduaz eta hezkuntza autogidatua izatearen garrantziaz ea.</p> <p>4-Haurraren irudia berrikustearen garrantzia: Haurraren garapenarekiko ikuspegi dinamikoa kontuan edukitzea.</p> <p>5-Pedagogia kritikoa bultzatzea eta euskara eta jolasa erdigunean ipintzea.</p> <p>6-Eskolak anitzak eta balore ezberdinen bultzatzaileak dira: euskalduna, feminista, ekologista ea.</p>	
------------------------------	---------------------------------------	--	--	--